

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresa aurrera ateratzeak hainbat kostu dakartza eta hauek sailkatzea komeni zaigu, dena argiago izan dezagun. Enpresak gastuei aurrera egitea lortuko baitu noski !.

Lehenik eta behin, kostu finkoak ditugu, ekoizpena aldatuta ere konstante mantentzen diren kostuak hain zuzen: Uggasak utzitako lokalaren alokairuaren prezioa, Laboral Kutxan eskatutako maileguaren interesak.

Ondoren, kostu aldakorrak izendatuko ditugu, hauek ekoizpenaren arabera aldatzen direnak dira: Neoprenoaren prezioa, eskatzen dugun kantitatearen arabera deskontu bat izango duguna; bezeroengana gerturatzeko autoaren gasolinaren prezioa. Motor elektrikoaren prezioa, hauek ere eskatutako kantitatearen arabera deskontu bat izango baitute.

Irabaziak kalkulatzeari ekin genioenean, hasiera batean kostu totalak mozkinak baino handiagoak zirela konturatu ginen. Honek, proiektua alde batera utzi eta beste ideia bat aukeratu beharrian, lana gogo handiagoarekin hartzea eragin zigun. Kostu finkoak zeintzuk ziren aztertu genuen lehendabizi hauek gutxia helburutzat izanik. Kostu aldakorrak gutxitzea ere zaila iruditu zitzaigun, hala ere, ez genuen erronka alde batera utzi !.

Behin arazo hori konponduta, urte on batean izango genuen emaitza ekonomikoa kalkulatzeari ekin genion. Horretarako, salduko ditugun aulki kopuruen aurreikuspen bat egitera behartuta ikusi ginen. Aztertu ondoren, 70.000 eserlekuko zenbakia jarri genuen helburutzat. Muga hau betetzen bada etekin dezente izango genuen eta portzentail bateko dohaintza egingo genuke, zeini eman aldatzen joango ginateteke diru honen beharra duten GKE asko daudelako eta denei edo gehiengo bati laguntzea gustatuko litzaigulako.

Urtea hain ona ez bada, hau da, 200 eserleku edo gutxiago saltzen baditugu argi dago gure etekinak ere ez direla hain onak izango. Hala ere, hau ez da oztopo izango gure enpresa aurrera ateratzeko, gure helburua gizarteak garraio publikoa erabil dezan baita eta ez hilabete bukaeran soldata on bat edukitzea.

